

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoari estatuko museo gardenenari saria eman diote

Guggenheim Bilbao Museoa estatuko museo gardenentzat jo dute: Fundación Compromiso y Transparencia-k Foro de Cultura y Buenas Prácticas-ekin egindako museo gardenentasunaren inguruko zerrendan lehen lekua lortu du. Txostenak estatuko 60 museo aztertu ditu eta hiru taldetan sailkatu, webgunean eskuragarri jartzen duten informazioaren arabera eta gardenentasunaren 24 seinalaren arabera: gardenak, zehargarriak eta ilunak.

Guggenheim Bilbao Museoak 17 puntu eskuratu ditu eta lehen lekuan dago. Atzetik doaz Artium eta Museo Nacional del Prado. Hiru horiek txostenean "garden"tzat jo dituzten bakarrak dira. Txostena hemen dago eskuragarri: <http://bit.ly/1L1YXl3>

Guggenheim Bilbao Museoa jakitun da gizarteak zilegizko ardura handia duela diru-funts eta zerbitzu publikoen erabileraren inguruan, eta horregatik konpromisoa erakutsi du gardenentasunarekin: informazio eta dokumentu adierazgarrienak publikoarentzat eskuragarri daude www.guggenheim-bilbao-corp.es webgunean. Estatuko beste museoek ez dute horrelakorik; bertan edonork eskuragarri ditu eguneratutako argibideak, uneoro.

Aintzatespen honek Museoa sortu zenetik izandako xede bat bermatzen du: kudeaketa-eredu berritzaile bat izatea eta etengabe hobetzea. Museoaren jardunean leku garrantzitsua dute jardunbide egokiak, gardenentasunak, kudeaketa etikoak eta kontu-arrazoiak ematea.

Konpromiso horri jarraiki, Museoak ildo horretatik lanean segituko du eta 2015–2017ko Plan Estrategikoaren barruan aurreikusita dago Etika Kode eta Jardunbide Egokien Kode bat taxutzea. Kode horrek kudeaketaren eta lidergoaren gardenetasuna eta jardunbide egokia sendotuko ditu; halaber, gizarteari hurbiltzeko eta gizarteak Museoari erakutsitako babesari gordetzeko balioko du.

Bilbon, 2015eko ekainaren 18an